

# HERNANI kronika

2003 urtea  
Azaroak 21  
Ostirala  
Alea: 944  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



CDH-ko Pelota Sailak aurreko larunbatean egin zuten taldeko argazkia, kirolegiko frontoian.

## Pelotako Ligan hernaniarrak maila ona ematen ari dira eta kadeteak ari dira nabamentzen

- Pelotari gehienek bukatu dute Gipuzkoako Ligako aurrenoko fasea, eta Pelota Sailak balorazio ona egin du
- Paleta goman, oraindik dezente falta dute lehenengo fasea bukatzeko, baina hernaniarrak ondo ari dira.

GIPUZKOAKO Pelota Liga-ko lehenengo fasea bukatu da modalitate gehienetan, eta Pelota Sailak balorazioa egin du. Lanik onena kadeteak ari dira egiten, bai banaka eta bai binaka, eta hernaniarrek Gipuzkoako finalean sartze-ko aukera haundiak dituzte.

Eskuz, Lehenengo mailako kadeteetan, Ojuel, Zabala, Aizpitarte eta Grajal azken fasean sartu da, bai buruz-beru eta bai binakaka, 9 partidu irabazi eta 3 galdu. Bi-garren mailako kadeteak ere oso fuerte ari dira eta orain arte jokatutako 5 partiduak irabazi egin dituzte.

Jubeniletan ere hernaniarrak txapelketa txukuna egi-ten ari dira, baina, Ezeiza I, Arrieta, Erdozio, Urkia, Ra-mos, Huizi eta Zurutuzak da-

### BALORAZIOA

#### ESKUZ

**Kadeteak** oso fuerte ari dira eta finala jokatzeko aukera haundia dute

**Jubenilak** ondo ari dira, baina, dagoeneko ez dute finala jokatzeko aukerarik.

**Nagusiak** lehenengo maila-ka igotzea zen helburua, baina orain mailaz ez jeis-tea dute borroka.

#### PALETA GOMA

**Infantilak** Hernaniko pelo-tariak elkarren kontra ari dira jokatzen.

**Nagusiak** bi partidu jokatu eta biak irabazi dituzte.

goeneko ez dute finala joka-tzeko aukerarik. Orain artean 4 partidu irabazi eta 10 galdu dituzte.

Nolanahi ere, Aitor Go-rotxategi hernaniarra In-txaurrondoko taldearekin ari da jokatzen txapelketa, eta binaka finalera sartzeko aukera haundiak ditu.

Eskuzko modalitatean ja-rraituta, nagusiak dira arazo gehienekin dabiltzanak. Txapelpketa hasieran, bigarren mailatik aurrenekora igotze-ko itxaropena zuten, baina, jokoz justu ibili eta eskuak lagundu ez, orain hirugarren mailara ez jeistea dute helbu-rua Sarasua, Alvarez eta San Sebastianek. Orain arte 2 partidu irabazi eta 5 galdu di-tuzte. Nagusien hirugarren mailan, berriz, Ruiz de Ga-

larreta, Irazustaberrena eta Otaegik partidu bat irabazi eta 4 galdu dituzte.

#### Paleta Goman

Paleta goman nagusiak eta infantilak ari dira Gipuzko-ko Txapelketa jokatzen eta partidu dezente gelditzen zaizkie azken fasera sartze-ko. Txapelketan dabiltzan pelotariak dira: Manzidor-Martinez, Arrieta-Lazkano, Garmendia-Otaegi-Esnaola, Arruarte-Zibilaga, Lukas-Gerra eta Jauregi-Lujanbio.

Manzidor-Martinez Euskal Herriko txapeldunak dira eta igandean Gipuzkoako txapeldunen kontra jokatuko dute Hernanin.

Gipuzkoako Txapelketa finalak abenduan dira eta bat Hernanin jokatuko da. □

### 'KZ gunea' azaroaren 28an irekiko dute Biterin

UDALA eta Jaurlaritzaren ekime-nez informatika zerbitzu berezi bat jartzeko dute Biterin, jendea inter-netera hurbiltzeko helburuarekin. Teknologia berrietara egokitzeko zailtasunak dituen jendeari zuzen-dua da zerbitza eta ordenagailuan ibiltzeko aukeraz gain ikastaroak ere egongo dira. Zerbitza azaroa-ren 28an jarriko da martxan. □

### Bihar, igerilekua itxita

BIHAR, larunbata, igerilekua itxi-ta egongo da goizeko 09:00etatik 11:00ak arte eta arratsaldean. Ige-riketa txapelketak dira bihar eta horregatik egongo da itxita. □

### BERTSOLARITZA

#### Iñaki Zelaia Zarautzen kantatuko du, igandeau

IGANDEAN jokatuko da Gipuz-koako txapelketako bigarren fina-laurrekoa Zarautzen. Iñaki Zelaia hernaniarra ariko da Ekaitz Goikoetxea, Aitor Sarriegi, Nahikari Gabilondo, Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Urangarekin batean. Zarau-zko Arizbatalde kirolegian, arratsaldeko 17:00etan. □

### SANTA ZEZILIA

#### Kontzertua eta omenaldia

SANTA Zeziliako kontzertuen barruan Musika Eskolako ikasle-en txanda da gaur, 18:00etan, Sandiusterrin. Musika Eskolan ikasten dituzten instrumentuak joko dituzte eta guztira 22 aktua-zio izango dira. Bestalde, omen-aldia egingo zaie gaur Jose Ramon Berrondo eta Luis Berrondo zena-ri, bi anaiak duela 25 urte hasi baitziren Musika Bandan. Omen-aldia 20:00etan Udaletxean. □

### ZINEA BITERIN

#### 'Hollywood: Departamento de homicidios'

GAUR 22:30etan, Biterin. □

**ADARRA**  
ETXE TRESNAK S.A.  
Txirrita kalea 11  
Tel. 943 55 04 27  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

**Allianz**  
ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Tel.: 943 557 326  
656 735 109

**BIKAIN  
AKADEMIA**  
abenduaren 1ean  
zabalduko dugu  
- Talde txikiak  
- Arreta pertsonala  
- Ordutegi malgua  
- Kurtso guztiak  
- Lehen eta bigarren  
hezkuntza  
- Batxillerria  
- Unibertsitatea  
Zure ikasketetan  
lagunduko dizugu  
Kardaberaz, 56-58 behe B  
626 68 38 96 / 679 66 41 81

**URGASKA, S.L.**  
Gas instalakuntza  
Material salmenta  
K21  
\* Asistentzia teknikoa,  
gas eta berogintzan.  
\* Gas propano, butano  
eta naturala: mantentua  
\* Iturgintza  
Aristizabal 9 Behea  
Tel.: 943 33 37 40

**Arrandegia**  
Mari Fe  
Nagusia 36  
943 550 489 | Orkolaga 17  
943 552 741  
HERNANI

**ZIMAK**  
ILEAPAINDEGIA  
Iturregi, 2 - 1ºB  
Hernani  
Tel.: 943 556556



Igandean Donostiako Maratoian aterako diren korrikalari hernaniarretako batzuk.

## Hernaniarrak Donostiako maratoiako pronto

ASTEBURU honetan ere Hernaniko korrikalarien beste zita garrantzitsu bat dute: Donostiako XXVIgarren maratoia. Roxario Pikabea, Ibon Iriondo, Eva Esnaola, Ketus Garin.... aurten ere Hernaniko korrikalari talde polita ausartuko da 42 kilometroak eta 192 me-

troak txukun egitera. Pikabea eta Esnaola izan dira herritarretan ondoena ibiltzeko aukera gehienetan dutenak. Pikabeak iaz 2:42an egin zuen Maratoia, eta aurten denbora hori ondu egin nahi du. Iaz Joakin Llanderas-ek ere oso denbora ona egin zuen (2:44), baina, aurten ez da

aterako, lesioa medio. Esnaolak iaz bigarren egin zuen emakume beteranoetan.

Maratoia goizeko 09:30etan hasiko da.

Maratoian ez ezik, egun berean izaten Maratoitxikian ere hernaniar dezente atera ohi da. □



Floridak emakumeek joan den larunbatean egindako bazkaria, Etxeberriko Lagun Artea elkartean.


**Floridak emakumeak denak elkarrekin.** Floridan bizi diren eta bizi izan diren emakumeek bazkaria egin zuten joan den larunbatean. Ehun bat emakume elkartu ziren Etxeberriko Lagun Artea elkartean eta primeran pasa zuten eta giro ezin hobea izan zen. □

## ESKOLA KIROLA

Saskibaloia	Taldeak	Non	Noiz	Pelota	Txintxa Langile C	Kirodegia	Bihar 15:00
Alebin neskak	Unm ea-D eutsche Scu	Kirodegia	Bihar 09:15	A lebinak	Txintxa Langile C	Kirodegia	Bihar 15:00
Alebin neskak	Langile-La Salle	Kirodegia	Bihar 09:15	A lebinak	Langile C-E lizatxo B	Kirodegia	Bihar 15:10
Alebin m utilak	Elizatxo B-hm aculada	Kirodegia	Bihar 10:15	A lebinak	Langile A-Langile E	Kirodegia	Bihar 15:20
Alebin m utilak	Unm ea B-Unm ea A	Kirodegia	Bihar 10:15	A lebinak	Elizatxo A-Unum ea A	Kirodegia	Bihar 15:30
Alebin m utilak	Elizatxo A-Langile	Kirodegia	Bihar 11:15	A lebinak	Langile B-Unum ea D	Kirodegia	Bihar 15:40
<b>Boleibola</b>							
Infantil neskak	Elizatxo Esko lapibak	Kirodegia	Bihar 11:00	Igeriketa			
Infantil m utilak	Im aculada-Lizardiz	Kirodegia	Bihar 11:00	Benjam in table guztiek bihar 09:00etatik auneria genlekuan			
Alebin neskak	Lizotanak-Elizatxo	Donostia	Bihar 10:30	M ahai Tenisa			
Alebin m utilak	San Luis-hm aculada	Donostia	Bihar 10:30	Kirodegia, bihar, 11:15etatik auneria m ahaiteen is partidak izango dia			
Infantil neskak	Andoaingo Langile	Andoain	Bihar 10:35				
Alebin m utilak	La Anunciata-Langile	Donostia	Bihar 11:15				

## ASTEBURUKO PARTIDUAK

## HITZ BITAN



Mikel Von Wichmann Irungo lasterketan.

### ✓ ATLETISMOA

**Eider Aldabe bigarren Irun Hiria Krossean.** Irun Hiria Krossa izan zen lehengo igandean eta Hernaniko gazte koadrila izan zen bertan. Eider Aldabek zilarrezko domina lortu zuen 1400 metrotan eta berekin batean Laura Madina eta beste 62 neskak hartu zuten parte. Mikel Von Wichmanek 2000 metroko proba bukatu zuen beste 67 mutilekin batean; Alebinetan, Ane Villaberde, Miriam Arrozpide, Alaitz Vangeneberg, Izaro Auzmendi, Enara Agirrezabal, Ana Herrero, Maddi Morcillo, Leire Juanes, Aiheko Olabide, Ander López, Omar Ben Ali, Julen Elizegi, Ander Goia eta Egoitz Gómezek parte hartu zuten, beste 97 neska eta 129 mutilekin batean, 1200 metrotako lasterketan.

### ✓ KRISKITIÑA TALDEA

**Dantza suelto ikastaroa emango da.** Dantza suelto ikastaroa emango du Kriskitiña dantza taldeak, 5 urtetik gorako jendearentzat. Informazio gehiago gaur eta bihar emango dute Biteri kultur etxearen. Gaur 18:00etatik 19:00etara egongo dira Kriskitiñako arduradunak Biterin eta bihar goizeko 12:00etatik 13:00etara.

### ✓ AEK EUSKALTEGIA

**Igandean Urdazubira.** AEK euskaltegiko Hernani eta Astigarragako ikasle eta irakasleak Urdazubira dijoaz datorren igandean. Irteera 09:00etan Atseginegitik.


**Bideoforuma gaur.** Azaroko bideo foruma gaur izango da arratsaldeko 19:00. *La Princesa Mononoke* izena duen pelikula projektatuko dute eta helduentzako marrazki bividun filmea da. □



**ANTONIO MORENO MINGORANCE**  
(Leire Moreno Etxartea ikaslearen aita)

"Urak dakarrena  
Urak darama  
Zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da"

Hernanin 2003ko azaroaren 21ean



**I. URTEURRENA**  
**Jose Luis Olaziregi Larburu**  
"Sagastiya"

2002ko azaroaren 21ean hil zen, 56 urterekin

Maite zenuen lagun  
arteko kabiya  
orain gelditu zaigu  
hutsune haundiya  
bihotz-bihotzetikan  
agur "Sagastiya"

BETI-LASAI KUADRILA

Hernanin 2003ko azaroaren 21ean

### IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: 943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu)

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrales, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33

### ZERBITZUAK

#### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ■ FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- Gaez: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ☎ 943 363549